

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Kontratu hau lizitatzea: finantza entitateak homologatzeko esparru akordioa, Arabako Foru Aldundiaren ordainketak kudeatzeko zerbitzua emateko, eta, orobat zerbitzu hori urtebetez emateko bost entitate kontratatzea gehienez ere

1. - Erakunde esleitzaileria.

a) Organismoa: Arabako Foru Aldundia.

b) Espedientea izapidetzen ari den bulegoa: Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua.

c) Espediente zenbakia: 22/16-ST

2. - Kontratuaren xedea. Finantza erakundeak homologatzeko esparru akordioa, Arabako Foru Aldundiaren ordainketak kudeatzeko zerbitzua emateko, eta orobat zerbitzu hori urtebetez emateko bost finantza entitate kontratatzea gehienez ere.

3. - Iraupena: esparru akordioa lau urte egongo da indarrean. Urtero esleitu eta formalizatu zaizkie, bost entitateri gehienez ere, homologazioko esparru akordioa garatzeko erabiliko diren kontratuak.

4. - Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era.

a) Izapidetzea: arrunta.

b) Prozedura: irekia. Akordio esparrua.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 428/2016 Foru Agindu uztailaren 20koaren bidez onartua.

c) Esleitzeko era: ezaugarrien taulako U) idatz zatian zehaztutako irizpideen arabera.

5. - Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: ez dagokio.

6. - Bermeak. Ez dira eskatu.

7. - Agiriak eta argibideak eskuratzea.

www.araba.eus.

Erakundea: Ogasun, Finantza eta Aurrekontuetako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzua.

Helbidea: Samaniego kalea 14, 4. solairua.

Herria eta posta kodea: 01008 Gasteiz.

Telefonoa: 945 181576

Faxa: 945 181514

8. - Kontratatzaile berriak bete behar dituen baldintzak. Ikusi O), P) eta Q) idatz zatietan adierazitakoak.

9. - Eskaintzak aurkeztea:

a) Epea: hamabost (15) egun, lizitazioa ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

b) Aurkeztu beharreko agiriak: ikusi administrazio klausulen pleguko II. atala.

c) Eskaintzak aurkezteko lekua:

Erakundea: Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorra.

Helbidea: Probintzia plaza, 5 - behea.

Herria eta posta kodea: 01001 Gasteiz

10. - A gutun azala irekitzea:

Dagokionean jakinaraziko zaie lizitatzaleei zein egunetan irekiko den, betiere B gutun azala ireki eta gero. Nolanahi ere, 13:00etan irekiko da, Ogasunaren eraikineko 4. solairuan (Samaniego kalea, 14, Gasteiz).

Gasteiz, 2016ko uztailaren 20a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko Foru Diputatua
JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ